PILOTA: KOKA ETA GONZALEZ BERGARAKO FRONTOIAN DOMEKAN /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko apirilaren 8a • V. urtea • 194. zenbakia • Doan Banatzekoa

HAUTESKUNDEAK

Bozketen gaineko zortzi iritzi jaso ditugu /4-5

IÑAKI EGAÑA / HISTORIALARIA

"Tokatutako lekuan borrokatu zuten 1936ko gerran, ez aukeratutako lekuan" **/9**

Goienka2a

PACO IBÁÑEZ KANTAUTOREA ESKORIATZAN

KULTURA

Alberto Urretxok joko du Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin /15

ASTEKO GAIA: JOAN PAULO II.A ZENA OMENTZEN DIHARDU MUNDU OSOAK

Ibarrekoak, Aita Santuaz berbetan

Gaur eguneko historiako pertsonaia handienetako bat hil berri da: Joan Paulo II.a Aita Santua. XX. eta XXI. mendeetako historian eragin handiko gizona izan da, bai nazioartean, baita fededunen bizitza pertsonalean ere. Denetariko sentimenduak eta iritziak piztu izan ditu, eta zortzi debagoiendarrenak jaso ditugu: sinestunak, gazteak, misiolariak, mojak, kazetariak… **/2-3**

Joan Paulo II.a, Kontxi Gallastegirekin eta Arantxa Madinabeitia mojarekin, arrasatearrak biak. KONTXI GALLASTEGI

Bi arrasatear atxilotu ditu poliziak, ETAri lagundu diotelakoan

Arrasateko bi gazte atxilotu zituen eguen goizaldean Polizia Nazionalak, Auzitegi Nazionalak aginduta: Gorka Aztiria eta Gaizka Olabarrieta. Eguenean bertan eraman zituzten Madrilera. Besteak beste, ordenagailu bat ere eraman zuten. Gorka Aztiria goizaldeko 02:30ak aldera atxilotu zuten gurasoen etxean, Santa Marina kalean. Gaizka Olabarrieta, berriz, Gipuzkoa etorbideko 3. zenbakian atxilotu zuten, goizaldean hura ere.

Arrasatear biez gainera, egun berean Hernanin emakume bat ere atxilotu zuten. Prentsa agentzien informazioaren arabera, hirurei ETAren Donostia komandoari laguntza ematea egozten die Auzitegi Nazionalak. Atzorako, herri batzarra zegoen deituta Arrasateko plazan, atxiloketengatik protesta egiteko. **/6**

GOIENKARIA, bi ediziodun gaurtik

GOIENKARIA eraldatuta agertu zaigu gaur. Aurrerantzean bi edizio ezberdin izango ditu. Arrasate eta Aretxabaletako herri edizioek (48 orri) bat egingo dute eta, bestalde, Bergara aldeko edizioa (40 orri) Oñatin ere banatuko da. **/8**

LEINTZ ALDEKOA
- Arrasate
- Aramaio
- Aretxabaleta
- Eskoriatza
- Gatzaga

BERGARA ALDEKOA
- Bergara
- Antzuola
- Elgeta
- Oñati

ARRASATE

Uhinak erabilita, Internet lehen baino gertuago baserrietan

Kable bariko Internet zerbitzua bultzatzeko hitzarmena sinatu dute Kelnarak eta Goiena.netek. Horren bitartez, Internet irisgarri ez den leku askotan berori erabiltzeko aukera izango dute orain. Hori bai, Murumendi bistan izan beharra dago, Muruko antena baten bitartez bideratzen dute-eta guztia. **/7**

DEBAGOIENA/6 • HERRIZ HERRI/7 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko apirilaren 8a

Joan Paulo II.a, gurekoek ikusita

Aita Santu maitatua edo kritikatua izan da, baina inor ez du axolagabe utzi Joan Paulo II.ak

LEIRE KORTABARRIA/ARRASATE IRRATIA

Apirilak 2, zapatua: Joan Paulo II.a aita santua hil berri zela jakin zuen munduko osoak. Aitasaindutza-aldi luzea –ia 27 urte– eta eragin handikoa utzi du Eliza Katolikoaren buruak: XX. mendeko gertakari handi askotan zeresana eta eragina izan zuen. Arlo pribatuko irakaspenetan, bere moralitate ikuspuntuak zorrotzak izan ziren eta eztabaida handia piztu zuten. Aita Santu horren gaineko zortzi debagoiendarren ikuspuntua batu dugu.

PELLO ZABALA
FRANTZISKOTARRA

"Arrakastak eta porrotak izan ditu"

Arrakastak eta porrotak, biak aipatu behar dira Joan Paulo II.aren jarduera baloratzerakoan. Bere merituak izan ditu: herri komunista batetik etorrita, munduan ekimen garrantzitsuak izan ditu: gerrateen kontra, adibidez. Beste erlijioekin hartu-emanak estutzea meritu handi bat izan da.

Arrakastak oso baliotsuak izan ditu, hortaz; baina azken 10 urteotan, Eliza egiten hasia zen aurrerapenak geldiarazi egin ditu. Plan handiak zituen, Ebanjelizazio Berria zelakoa, adibidez, eta horri ez dio zukurik atera. Liturgian atzera egin du: emakumeen egoera, sexu-morala... Hurrengo Aita Santuari eskatuko nioke II. Kontzilio Vatikanora itzultzea, ilusioa piztea.

ARANTXA MADINABEITIA
ERROMAN MOJA 45 URTEAN

"Gizon aparta zen, pertsonei entregatua"

Etengabeko emozioz betetako egunak dira hauek. Gure etxetik San Pedro plaza ikusten dugu eta egunotan jendez gainezka egon da goizean goizetik. Neu ez naiz joan, ezin zelako sartu ere egin. Gipuzkoatik etortzekoa zen jende askoren berri jaso dut, batez ere Donostiatik.

Neuretako inpresio handia izan da Aita Santuaren heriotza. Izan ere, bost Aita Santu ezagutu ditut Erroman nagoenetik. Joan XXIII.ak eta Joan Paulo II.ak egin didate inpresio handia. Joan Paulo II.a gizon aparta izan da. Bere izaeratik nabarmenduko nituzke ezaugarri batzuk: batez ere, bere xalotasuna eta pertsona guztienganako zuen maitasuna. Bere burua pertsonei entregatutako Aita Santua izan da; gazteei, batik bat. Egunotan, gazte asko eta asko etorri dira Vatikanora, eta ikustekoa zen euren jarrera. Aita hil bazitzaien bezala zeuden.

"Azken hamar urteotan Eliza egiten hasia zen aurrerapenak geldiarazi egin ditu"
PELLO ZABALA

EUGENIO OTSOA
ARRASATEARRA; POLONIAN DAGO

"Hilaren 8an jai eskatu dute lantegi askotan"

Aita Santu moduan, bere jaioterrian, Polonian, oso maitatua da. Egunotan, poloniarrek elkartasunaren bidez egin diote azken agurra: kalean, jendea autoetatik irten eta elkarri eskua eman eta elkarretaratzeak egiten zituzten. Etxeetan banderak ipini dituzte xingola beltzarekin. Telebista kate batzuek emanaldia aldatu dute eta Aita Santuaren gaineko albisteak, bere bizitza... gogoratu dituzte. Tabernak eta dendak ere itxi egin dute.

Bestalde, Polonian erregimen politiko aldaketa prozesuan zeresan handia izan zuen: ez zuen politikaz hitz egin, baina jendea animatu zuen zabaltzera, beste herri eta ekonomia batzuk ezagutzera eta aldaketari beldurra galtzera.

Hilaren 8a, egubakoitza, jai hartzea eskatu zuten lantegi askotan. Poloniatik bakarrik milioitik gora lagun joan da Erromara, hiletara. Erroman ehortziko zuten albistea ondo hartu dute.

"Vatikanoan gazte asko batu da, eta ikustekoa zen euren jarrera, aita hil bazitzaien bezala"
ARANTXA MADINABEITIA

IGNAZIO ARREGI
VATIKANO IRRATIKO ZUZENDARIA

"Munduak behar zuen Aita Santua zen"

Kazetari bezala, esperientzia handia da; inoiz ez ditut Erroman hainbeste komunikabide ikusi. Eta ni neu sentitzen naiz neure zati bat desagertu izan balitz bezala. Aita Santu honek XX. mendea bete-betean hartu du eta harekin batera bizi izan ditut gertakari asko: bi Mundu Gerrate, komunismoaren eta nazismoaren erorketa... Orain goizegi da bere pontifikatua behar bezala baloratzeko, baina argi dago aukeratu zutenean, hura zela Elizak eta munduak behar zuen Aita Santua, munduak bizi zuen egoera aldatzeko.

Bestalde, ikusita azken urteotan zenbat sufritu zuen eta zelako zahartzaroa izan duen, pena ikaragarria sentitzen du jende guztiak. Hemen ikusten ari gara egunotan mota guztietako jendea: gazteak, zaharrak, klase sozial guztietakoak... jendearen bihotzean dago gizon hori. Neurrigabeko pertsona izan da.

"Poloniarrek asko maite zuten, eta hemendik bakarrik, milioitik gora lagun doaz Erromara"
EUGENIO OTSOA

PEDRO LUIS URANGA
ARRASATEN APAIZ; 29 URTE DITU

"Jarrera tradizionala sendotu du"

Bere Aitasaindutza-aldia ulertzeko, bi klabe ikusten ditut nik: batetik, poloniarra izatea. Fedea eta espiritualtasuna ulertzeko duten modua sumatu zaio. Eta, bestetik, II. Kontzilio Vatikanoa bideratzea egokitu zaiola; hau da, oraingo Elizaren oinarriak jartzea. Alde horretatik, Kontzilioarekiko jarrera tradizionalista izan du eta, aldatzen ari den mundu baten, katolizismo tradizionala sendotu du. Eta ildo horretatik, afektibitatea landu du jendea erakartzeko; hor kokatzen ditut egin dituen topaketa handiak. Moralitate kontuetan, iruditzen zait jende asko, gazteak batez ere, eguneroko bizitzan, ez datozela bat bere ikuspuntuekin.

Teologia aldetik, ez du benetako elkarrizketa bultzatu; aldiz, eragozpenak ipini dizkio: Askapen Teologia dela, Europako postmodernitatea dela, Indiako edo Ekialdeko Hinduismoa dela... elkarrizketari ateak itxi dizkio.

"XX. mendea bete-betean hartu du, eta egoera asko aldatzeko behar zen Aita Santua zen"
IGNAZIO ARREGI

KONTXI GALLASTEGI

Osasun arazoak hasi aurretik, sasoi handiko gizona zen.



KONTXI GALLASTEGI

Azken urteotan nabarmen makaldu zen Joan Paulo II.a.

GOIENKARIA

Gaur, egubakoitza, izango da Aita Santuaren hileta elizkizuna. Haren gorpua omentzeko milioika lagun batu dira Erroman.

ARANTZA JAKA
ARETXABALETAN MOJA

"Bere ikuspegiekiko oso leiala izan zen"

Gauza jakina zen hiltzear zegoela, baina 26 urtean Aita Santu izanda, bat-batean desagertzea ez dut oraindik guztiz onartu.

Aita Santu moduan, munduan zehar ibili da; barkatzen, jendea hartzen eta eurekin sufritzen jakin izan du. Asko eragin dio beti bere jatorriak, umezaroak eta izan zuen bizitza gogorra, eta horrek bere Aitasaindutza-aldia baldintzatu du. Oso argi izan du beti zelan jokatu behar zuen, eta bere ikuspegiekiko oso leiala izan da; leialtasun hori miresten dut. Baliteke egoera batzuetan gauzak beste modu batera egin ahal izatea, baina gaurko zein politikarik egin du haren neurriko lana?

Fedea zein sakonetik bizi zuen ere azpimarratuko dut. Niri beti inpresio handia egiten zidan Aita Santua otoitzen ikusteak. Sakontasun hori berak utzi digun mezu eder bat da.

Hurrengo Aita Santuari dagokionez, gustatuko litzaidake munduarengandik oso hurbil egotea, eta Jesukristoren mezu askatzaile eta bizi-emailea zabaltzea.

JUAN KRUZ JUARISTI
MISIOLARIA; PARROKOA ELGETAN

"Hirugarren Munduari ate asko ireki dizkio"

Ruandan misiolari nengoela izendatu zuten Aita Santu, eta gure kezka zen zelan jokatuko zuen Hirugarren Munduarekiko. Horregatik, guretako oso pozgarria izan zen bera Afrikara eta Ruandara etortzea. Hirugarren Munduari laguntzeko ate asko ireki ditu, eta barkamena eskatu du katolikoen erru batzuengatik: esklabutza, adibidez. Afrikan fede handiko jende asko dago, eta pena handia dute egunotan.

Bestetik, politikan ere jarrera erabakigarria izan zuen. Komunismoa erori zenean, denek uste zuten kapitalismoa ondo hartuko zuela, baina erregimen horrek, materialismoak, dirugoseak... dakarten erlijiotasun galera eta alde txarrak gogor salatu ditu. Hori oso doktrina ona izan da, nire iritziz.

Hurrengo Aita Santuak erronka handiak ditu; izan ere, zaila da gaur egungo munduarekin elkarrizketa sortzea. Ni neu ezkorra naiz Elizaren etorkizunaz; gazteek, langileek... alde egin dute Elizatik, eta horiek erakartzea erronka handia da.

ARANTZA ALONSO
ARRASATEAR SINESTUNA

"Oso Aita Santu modernoa izan zen"

Pena handiz eta poz handiz bizi ditut egun hauek. Penaz, Aita Santua hil delako; pozez, sinestun bezala badakidalako Zeruan dagoela eta sufrimendua bukatu dela beretako. Orain bost urte Erroman izan ginen, eta bera ezagutu genuen. Berba egin genuen berarekin eta bedeinkapena eman zigun.

Aita Santu baketzailea izan zen, eta hori da munduak behar zuena eta behar duena. Bestetik, oso Aita Santu modernoa izan zen. Ideiak oso garbi zituen. Asko kritikatu dute, batez ere sinisten ez duten eta Eliza axola ez zaienek, preserbatiboen, abortuaren, eutanasiaren... gaineko doktrinarengatik. Sinestun bazara, badakizu arau horiek jarraitu behar dituzula eta Aita Santuak ezin duela esan ondo ez dagoena ondo dagoela. Gero, norbera aske da, bere kontzientziarekin, nahi duena egiteko.

"Eguneroko bizitzan, jende asko ez dator bat Aita Santu honek emandako ikuspuntuekin"
PEDRO LUIS URANGA

"Inpresioa egiten zidan hura otoitzen ikusteak. Fede sakontasun hori mezu ederra da"
ARANTZA JAKA

"Kapitalismoaren alde txarrak gogor salatu ditu, eta hori oso doktrina ona izan da"
JUAN KRUZ JUARISTI

"Asko kritikatu dute, baina batez ere sinisten ez duten eta Eliza axola ez zaien pertsonek"
ARANTZA ALONSO

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko apirilaren 8a

EUSKO LEGEBILTZARRARERAKO HAUTESKUNDEAK 2005

Legebiltzarrerako hauteskundeak, zortzi debagoiendarren iritziz

Gehienen ustez jokoan daude Estatu berriaren garapena eta parte hartzeko aukera

MIKEL USABIAGA
IRAKASLEA MU-N

"Lehendakariari eskatuko nioke gehiago ardura dadila herriaz"

1. Gauza handirik ez. Alderdi bakoitzak erakutsi beharko du jarraipen prozesu honetan non kokatzen den.

2. Azken 25 urteotan, antzeko emaitzak izan dira beti, eta indarrak orekatuta daude orain ere. Boto absolutu kopuru aldaketa txikia gertatzen bada, dauden hauteskunde legeengatik, ematen du egundoko aldaketa izan dela.

3. Benetako aldaketa, baina ez hitzez, baizik eta egitez. Herri honek ezin du jarraitu azken 25 urteotan bezala. Hitz asko egiten dugu, baina ekintza gutxi dago. Batez ere, eskatuko nioke gutxiago ardura dadila joko politikoaz eta gehiago herriaz. Baldintza ekonomikoak gero eta txarragoak dira, pobrezia gora doa, gero eta estresatuago bizi gara... Horretan aldaketa bat eskatzen diot.

MAIDER UNDA
BORROKA LIBREKO JOKALARIA

"Irabazten dituenak erabakiko du Ibarretxe Planaren alde edo aurka egin"

1. Hauteskundeak irabazten dituenak erabakiko du Ibarretxe Planak aurrera egitea edo irabazten duenak beste bide bat hartzea.

2. Espero dut gauzek berdin jarraituko dutela. Komunikabideak saiatzen ari diren arren Ibarretxeren aurkako ahaleginean, gauzak ez dira askorik aldatuko. Ibarretxek egiten dituen gauza gehienak gutxietsiz eta egiten ez dituenak salatuz jardun dute hedabideek. Baina badirudi jendeak ez duela beste lehendakari bat nahi. Beraz, datozen hauteskundeetan orain arteko emaitzak errepikatuko dira.

3. Eskatuko nioke orain arteko bidetik jarraitzeko lehendakaria dena dela ere; baina betiere herriak zer nahi duen entzunda. Gainera, uste dut negoziazioa beharrezkoa dela, eta hori eskatuko nioke, negoziatzeko.

TXERRA BOLINAGA
GAY MUGIMENDUKOA

"Hauteskunde hauetan jokoan dago demokrazia, eta herriaren hitza"

1. Jokoan dago demokrazia, batez ere; sistema eredu hau, eta herriaren hitza. Nire ustez, une honetan ez gaude egoera demokratikoan; izan ere, jende asko kanpoan utzi dute.

2. Neuk espero eta uste dudana da ezker abertzaleak emaitza onak ateratzea. Irabazi, seguruenik EAJ–EAk irabaziko du, baina baliteke koalizio horrek jipoi txiki bat jasotzea ere. Beste alderdien emaitzak oraingo parekoak izango dira.

3. Lehendakariak beti dio euskaldunon hitza defenditu nahi duela; ba eskatzen diot hori hitzetatik ekintzetara eraman dezala. Bestalde, gay mugimenduaren eskaerak kontuan har ditzal; adibidez, hezkuntzan eredu ez heterosexista bat ere sartzea.

IDOIA ETXEBERRIA
'BERRIA'-KO KAZETARIA

"Legebiltzarra ez da normala izango; iritzi guztiek egon beharko lukete ordezkatuta"

1. Eusko Legelbiltzarreko eserlekuak nork berotuko dituen dago jokoan, Euskal Herriko zati bat gobernatzeko. Une erabakiorra dela diote, euskal gatazka konpontzeko bidean, baina nik ez dut hain argi ikusten, gizartearen alor bat jokoz kanpo egonda. Lehen mahai baten bueltan eseri eta hitz egitea zaila bazen, orain zailagoa izango da.

2. Uste dut EAJ-EA koalizioak irabaziko duela berriro, EB-IUren babesarekin. Horretan ez da aldaketa handirik espero, baina sortuko den Legebiltzarra ez da normala izango. Iritzi guztiek egon beharko lukete ordezkatuta.

3. Eztabaida antzuak alde batera uzteko, eta Euskal Herriko gatazkari konponbidea topatzeko. Eta euskal kulturaren kontrako erasoak eta giza eskubideen urraketak geldia-razteko tresnak sortzeko ere bai.

1. Zer dago jokoan hauteskunde hauetan?

2. Ze emaitza espero duzu apirilaren 17an?

3. Zer eskatuko zenioke hurrengo lehendakariari?



GOIENKARIA
Mikel Usabiaga.

GOIENKARIA
Maider Unda.



GOIENKARIA
Txerra Bolinaga.

GOIENKARIA
Idoia Etxeberria.

LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA
Begietako mikrokirurgia:
Kataratak: Miopia / Hipermetropia.
Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatua

Manuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

RAFAEL GOMEZ
AL ANDALUS-EKO PRESIDENTEA

"Hurrengo urteotarako zer Estatutu mota nahi dugun dago jokoan"

1. Autonomia erkidego edo nazio eredua dago jokoan hauteskundeetan. Tamalez, Euskadi bi zatitan banatuta dago, erdi eta erdi gutxi gorabehera. Hortaz, hurrengo urteotarako zer estatutu mota nahi dugun dago jokoan hauteskundeotan.

2. Ez dut uste aurreko hauteskundeekiko asko aldatuko direnik. Hori bai, azpimarratzekoa da oraingoan herri-tarren zati bat ez dela ordezkatuta egongo. Eta uste dut horretan erantzukizuna duten guztiei —eta denek dute erantzukizunaren zati bat— kontuak eskatu beharko zaizkiela, eta batez ere, bi muturretan daudenei.

3. Ez nuke nahi inork erabateko gehiengoa lortzea eta, horregatik, eskatu nahi diot hurrengo lehendakariari herritar guz-tiendako goberna dezala.



GOIENKARIA

Rafael Gomez.

URKO LOPEZ
ENPRESA ZIENTZIEN IRAKASLEA

"Estatutu berriaren garapen posiblerako bideak daude jokoan hauteskundeetan"

1. Lehendakaritzaz gain, Legebiltzarrean onartutako Estatutu berriaren garapen posiblerako bideak daude jokoan; irabazlearen arabera garapen hau eman daiteke ala ez.

2. EHAK agertu aurretik, EAJ-EA koalizioak gehiengo absolutua izateko aukera asko zeukan. Batasunak EHAKentzat bozka eskatzen badu, legebiltzarreko egoerak ez luke, aldaketa nabarmenik izango.

3. Gizartearen, euskal kulturaren eta ekonomiaren onurarako ahaleginak egitea.

GOIENKARIA

Urko Lopez.

GOIENKARIA

Maite Aristegi.

MAITE ARISTEGI
BASERRITARRA

"Nahiko nuke guztion hitza onartuko duen lehendakaria"

1. Bi zerrenda legez kanpo utzi dituzte eta jokoan dago gidaritza Euskal Herriarendako datozen urte erabakigarri hauetan.

2. Bakearen eta demokraziaren aldeko ordezkaritza.

3. Bizi dugun gatazka gainditzeko eta gizarte zuzenagoa eta orekatuagoa lortzeko urrats sendoak ematea. Guztion hitza onartu behar du lehendakariak.

GOIENKARIA

Elena Laka.

ELENA LAKA
ABOKATUA

"Herri baten gaitasun demokratikoa jokatzen dela esango nuke"

1. Hauteskunde hauek modu berezian egingo direnez, jende asko geldituko da nahi duen aukera bozkatu gabe; beraz, herri baten gaitasun demokratikoa jokatzen dela esango nuke.

2. EAJ-EAk lortuko du gehiengoa, baina ez erabatekoa. Beraz, ituna egin beharko du beste norbaitekin.

3. Eskatuko nioke izan ditzala kontuan herriaren gabezia demokratikoak.

Kanpaina, gurean

JUAN JOSE IBARRETXE EAJ-EA-KO LEHENDAKARIGAIA, IKERLANEN
EAJ-EAko hautagaia Arrasateko Ikerlanen izan zen eguaztenean. Esker hitzak izan zituen Ikerlanendako ikerkuntzaren alorrean egindako lanagatik. Datorren legealdirako helburua Europarekiko teknologia konbergentzia lortzea dela esan zuen Ibarretxek.

ARALARREK DEBAGOIENEKO HAUTAGAIAK AURKEZTU DITU
Aralarrek Debagoieneko zortzi hautagaiak eta hauteskunde programaren ildo nagusiak aurkeztu zituen martitzenean: bakea, soberania, euskara eta ezkerra dira Aralarren ildo nagusiak. Lurralde bakoitzean ordezkaritza lortzea dute helburu.

EZKER BATUA, ETXEBIZITZAREN ARAZOA KONPONTZEKO PREST
Etxebizitzen arazoa hizpide izan zuten atzo, eguena, Ezker Batuko kideek Arrasateko Monterronen. Martin Calvo arrasatearrak, Gipuzkoatik hirugarren doanak, bere alderdiak gai honetarako duen egitasmoa azaldu zuen.

BLANCA RONCALEK (PSE-EE) ARROSAK BANATU DITU ARRASATEN
Blanca Roncal, PSE-EEko Gipuzkoako zerrendan hirugarren doana, arrosak banatzen ibili da gaur, egubakoitza, goizean Arrasateko azokan; harekin batera, Arrasateko beste alderdikide batzuk ere bai.

JOSEBA EGIBAR, EAJ-EA-KO ZERRENDABURUA, DEBAGOIENEAN
Debagoienera etorriko da astelehenean EAJ-EA-ko zerrendaburua, Joseba Egibar; harekin batera, beste hautagai eta alderdikide batzuk ere. Bergarako Miguel Altunan hitzaldia egingo du 19:30ean. Goizean, Oñatin eta Aretxabaletan izango dira, kalean; arratsaldean, Arrasaten eta Bergaran.

ARETXA PLATAFORMA, LEGEZ LANPORAKETAREN AURKA
Hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea aldarrikatu du Aretxa plataformak eta herritarrei eskubide urraketen aurka egingo diren ekitaldietan parte hartzeko eskatu: gaur, egubakoitza, arratsaldean, herriko biribilguneetara joango dira protesta egitera; zapatuan, Bilbon egingo den manifestaziora joateko deialdia egin dute, eta astelehenean legez kanporatzearen kontrako sinadura batzea egingo dute 18:30ean udaletxe zaharrean.

FISIOTERAPIA KONTSULTA BERRIA

Irene Unzueta

Ordua hartzeko:
San Martin Osasundegia
Ramon Mª Lili 2

943 76 59 39

I.A.
Herriko eta ibarreko beste hainbat txokotako informazioa jaso daiteke Bergarako turismo bulegoan.

MCCk berregituratu egingo du 2006rako industria taldea

Industria taldeak hamaika atal izango ditu

IRATI AGIRREAZALDEGI

Hiru urteko lanaren ostean, 2006aren hasierarako gertu izan nahi du MCCk industri alorreko egituraketa berria. Honela, mailakako banaketa bertan behera utziko dute eta zortzi atal izatetik hamaika izatera pasako dira.

MCCko 72 industri kooperatibak honako hamaika ataletan banatuko dituzte: etxea, automozioa, osagaiak, eraikuntza, Ulma, lanabesak, Hobelan, ekipamendu ondasunak, makina erreminta, industria ekipamendua eta enpresa zerbitzuak. Atal bakoitzak, ordea, estatutu propioa izango du egitura berriarekin.

ERAGINGARRITASUN HANDIAGOA

Egitura berriarekin lortu nahi dute eragingarritasun handiagoa. Merkatuari eta produktuei dagokienez, antzerako negozioak taldekatu dituzte horretarako.

Berregituraketaz gain, MCCk industri kontseilua eratzea ere aurreikusi du. Hark aurrez aipatutako atalak koordinatuko lituzke; baita berrikuntzarako estrategiak ezarri ere.

Hala ere, MCCren berregituraketak ez du eraginik izango finantza taldean ezta banaketa taldean ere.

Aste Santuan iaz baino bisitari gehiago ibarreko turismo bulegoetan

Oñati, Bergara eta Arantzazuko bulegoetan 2.627 bisitari izan dira

I. AGIRREAZALDEGI/A. LASAGABASTER

Turismoak gora egin du Aste Santuan ibarrean. Hori adierazten dute behintzat Debagoieneko hainbat turismo bulegotan jaso ditugun datuek. Iazkoekin konparatuz bisitari kopurua igo egin da, baita kontsultak ere.

Oñatiko turismo bulegokoak pozik azaldu dira Aste Santuan lortutako emaitzekin; guztira 974 lagun pasatu dira bertatik eta horietatik 494ek bisita gidatuetan hartu dute parte. "Datu historikoak lortu ditugu. Eguraldiak lagundu egin du, iaz ez bezala, baina ez genuen pentsatzen sarrerak ia bikoiztu egingo zirenik", esan digute.

Bisitariak nondik datozen galdetuta esan dute jende asko gerturatu dela EAEtik, eta Kataluniatik etorritakoak ere ugari izan direla. Azken horiek, gainera, bisita gidatuetan hartu dute parte, gipuzkoarrek eta bizkaitarrek baino gehiago.

BERGARAN ERE GORA

Oñatin bezala, Bergaran ere gora egin du turismoak. Herri horretako turismo bulegoak martxoaren 17tik apirilaren 3ra bitartean 418 kontsulta jaso ditu.

Bisitari gehienak EAEtik etorri dira, baina Kataluniako jende ugari ere izan da ibarrean

Konparazioak egite aldera, iaz, Aste Santuan 228 bisitarik jo zuten turismo bulegora eta aurten, jaiegun beretan, 262 izan dira egindako kontsultak. Horietatik 51 bergararrek egindakoak izan dira. 104 Euskadikoek, 238 Espainiako Estatukoek, 19 europarrek, lau amerikarrek eta bi ozeaniarrek. Igoera hori delaeta, balorazio positiboa egin dute.

ARANTZAZUN, GEHIEN

Arantzazuko Santutegian izan den Debagoieneko Informazio Puntu Turistikotik, Aste Santuan 1.391 bisitari pasa dira; aurreko urteko datuekin konparatuz igoera %22,5 izan da. Kopuru handiena Euskal Herritarrena izan da. Katalunia eta Madrilgo bisitariak ere izan dira, baita atzerritarrak ere.

Bi arrasatear atxilotu egin ditu poliziak, ETAri lagundu diotelakoan

U.M.

Arrasateko bi gazte atxilotu zituen eguen goizaldean Espainiako Poliziak, Auzitegi Nazionalak aginduta: Gorka Aztiria eta Gaizka Olabarrieta. Eguenean bertan eraman zituzten Madrilera. Besteak beste, ordenagailu bat ere eraman zuten.

Gorka Aztiriaren amak kontatu digunez, goizaldeko 02:30ak aldera joan zitzaien polizia etxera, Santa Marina kalera. Etxea goitik behera miatu zutela kontatu digu, baita ganbara ere. Eta semea, 27 urteko Gorka Aztiria, eskuburdinak ipini barik baina aurpegia estalita zuela eraman zutela furgonetara. Gaineratu digu ordenagailua, libururen bat eta paper batzuk ere eraman zituela poliziak.

Gaizka Olabarrieta, berriz, Gipuzkoa etorbideko 3. zenbakian atxilotu dute 25 urteko arrasatearra; goizaldean hura ere.

Arrasatear biez gainera, egun berean Hernanin emakume bat ere atxilotu zuten. Prentsa agentzien informazioaren arabera, hirurei ETAren Donostia komandoari laguntza ematea egozten die Auzitegi Nazionalak. Hain justu ere, martxoaren 25ean Donostian atxilotu zituzten hiru lagunekin harremana dutela diote.

PROTESTAK ETA ATXILOTU GEHIAGO

Atxilotuen lagun eta ezagunek kezka azaldu zuten haien egoerarengatik. Terrorismoaren kontrako legea aplikatzearen ondorioz, inkomunikatuta, poliziaren eskuetan eman behar dituzten egunetan tortura jasan dezaketen beldur.

Bestalde, eguen goizean, gertatutakoaren gaineko kartelak ipintzen zebilela, gazte bat atxilotu zuen Ertzaintzak. Lekukoen arabera, istiluetan bi zauritu izan ziren: ertzain bat eta gazte bat.

DEBAGOIENEAN LABUR

Hizkuntza Eskubideen Aldeko Bilkura domekan Oiartzunen, EHEk antolatuta

Hizkuntza Eskubideen Eguna dela-eta, Euskal Herrian Euskaraz erakundeak Hizkuntza Eskubideen Aldeko II. Nazio Bilkura egingo du oraingo domekan Oiartzunen. Bilkurak balio izango du euskararen egoeraren gaineko azterketa egiteko: maifestazioa egingo dute, ekitaldia udaletxean, herri bazkaria plazan, herri kantak, Tapia eta Leturiarekin erromeria, eta abar. Debagoieneko EHEk autobusak antolatu ditu Oiartzunera joateko. Domeka goizean Aretxabaletatik aterako da autobusa 09:45ean (izen-ematea, Urbaltzen); Arrasaten, 10:00etan, Garibain (izen-ematea, Iratin) eta Bergaran, 10:15ean, autobus geltokian. Euskararen ofizialtasuna aldarrikatu nahi du EHEk, eta, horretarako, *Konpromisoaren sokatik tira* leloa erabiliko du domekako bilkuran.

Hiltegia Bizirik plataformak dei egin die batzar baterako harakin eta baserritarrei

Oñatiko Hiltegia Bizirik plataformak antolatu du batzar bat Debagoieneko, Debabarreneko eta Goierri garaiko baserritarrei eta harakinei zuzendua. Batzar hori egingo dute oraingo astelehenean Oñatiko Institutuan (Unibertsitate zaharraren ondoan), 20:00etan. Batzarraren helburua da hiltegiaren etorkizunaren gainean Hiltegia Bizirik plataformak landu duen proposamena aurkeztu, eztabaidatu, aditzera eman eta iritziak jasotzea.

Udalekuak antolatu ditu aurten ere Foru Aldundiak 7 eta 17 urte artekoendako

Foru Aldundiak udalekuak antolatu ditu, 7-13 urte arteko haurrentzat eta udako ekintzak 14-17 urte artekoentzat. 7, 10 edo 14 eguneko egonaldiak izango dira. Arrasate, Bergara eta Oñatiko gazte informazio zerbitzuetan eta Aretxabaleta eta Eskoriatzako kultura etxeetan izena emateko aukera dago, ohiko ordutegian.

GATZA-GAIN Jatetxea

Berriz ere zabalik!

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Espezialitateak:

Baserriko oilaskoa
Etxeko txorizoa
eta okela ekologikoa

943 71 40 05 LEINTZ GATZAGA

Astelehenetan itxita

ANTZUOLA

Errekaren proiektua onartzekoak ziren gaur, egubakoitza

Apirileko osoko bilkura egitekoak ziren gaur, egubakoitza. Hantxe, besteak beste, Deskarga erreka bideratzeko proiektu egokitua behin betikoz onartzekoak ziren.

Otsailean ikusgai jarri zuten proiektua udaletxean, eta martxoaren 15era arte alegazioak aurkezteko aukera izan zuten herritarrek. Guztira, bederatzi herritar, talde eta alderdi politikok aurkeztu zituzten euren alegazioak.

Gaur, azkenik, horrenbeste zeresan eman duen proiektu hori onartzekoak ziren. /AINTZANE IRIZAR

U.M.

ARRASATE

Uhinak erabilita, Internet lehen baino gertuago

Kable bariko Internet zerbitzua bultzatzeko hitzarmena sinatu dute Kelnarak eta Goiena.net-ek. Horren bitartez, Internet iristen ez den leku askotan berori erabiltzeko aukera izango dute orain. Uhinen bitartez bidalitako seinalea aprobetxatzen du Kelnarak Interneten banda zabala eta telefonia finkoa eskaintzeko. Horri esker, interesa duenak nahi duen eraikinean panel bat ipintzea aski du seinalea hartzeko, eta kablea iristen ez den leku askotara iristen da seinale hori (batez ere, inguruko baserri askotara). Hori bai, Muru mendia bistan izan beharra dago, Muruko antena baten bitartez bideratzen dute-eta guztia. Goiena.net-i dagokionez, berriz, sareko informazioa errazago bideratzeaz gainera, sarean euskararen presentzia bermatuko dute hitzarmen horri esker. /U.M.

ARETXABALETA

Automobilaren mekanika ikasteko ikastaroa antolatu du Loramendi EEk

Loramendi Euskara Elkarteak udaberriko egitaraua kaleratu du. Hitzaldi ugari antolatu ditu: maiatzean, esaterako, Jon Arretxe idazleak *Griot* bidaia liburua aurkeztuko du, eta ekainean, Edorta Agirre sukaldariak, *Euskal sukaldaritzaren antropologia*.

Apirilerako automobilaren mekanikaren gaineko ikastaroa antolatu du. 18an, 19an eta 20an egingo dute Aretxabaletako institutuan, 18:00etatik 20:00etara. Oinarrizko eskolak izango dira, eta izena emateko Loramendi EEra deitu behar dute interesatuek. /M.A.

ARAMAIO

Iazko txapeldunari aurre egin beharko dio bihar Manex Agirre bertsolariak

Bihar, zapatua, Arabako Bertsolari Txapelketako finala jokatuko dute. 17:30ean hasiko da, Jesus Guridi Auditorioan. Sei bertsolari lehiatuko dira, tartean, Manex Agirre aramaioarra. Gainerakoak, honako hauek: Iñaki Viñaspre, Oihane Perea, Zigor Enbeita, Juan Mari Juaristi eta iazko txapeldun Asier Otamendi. Hain justu ere, azken hori da askorendako aurtengo faboritoa.

Manex Agirrek esan digu bestetan baino presio txikiagoarekin doala finalera; hortaz, lasaiago. /U.M.

OÑATI

Urteurrena borobiltzeko jaialdia antolatu du biharko Ganbarak

Joan den azaroan bete zuen 10. urteurrena borobiltzeko, jaialdi berezia egingo du bihar, zapatua, Ganbara Abesbatzak kiroldegiko frontoian. 22:30ean hasiko da jaialdia eta sarrerak salgai daude kultura etxean, bost euroren truke.

Jaialdia berezia izango da, batetik, Ganbara Abesbatza ez delako bakarrik egongo eta, bestetik, musika ez ezik, beste hainbat ikuskizun ere antolatu dituztelako. Ganbara Txikia, Ganbara Txikitxoa eta Oñati Abesbatzak ere parte hartuko dute, adibidez. Baita Ganbara Abesbatzako aurreko abeslariek ere. Mokoroa, Sarasola eta Azurtzaren lanak abestuko dituzte, besteak beste.

Baina, musikaz gain, argazkiak, bideoak, testimonioak eta sorpresak ere egongo dira. Gainera, Jose Antonio Azpiazu historialariak istorio bat idatzi du biharko jaialdirako eta narratzaile batek istorio hori kontatuko du modu arinean. Jaialdia 22:30ean hasiko da.

DISKOA

Sortu zenean, duela 10 urte, 12 lagunek osatzen zuten Ganbara Abesbatza eta egun 23 dira. 10 urte hauetan bi zuzendari izan ditu: Gorka Cueva izan zen lehenengoa eta, 1996tik, Esteban Urtzelai da.

Gabonetarako, eta urteurrenarekin lotuta, lehen CDa atera zuten, *Sagatz*. Orain arte sari asko jaso dituzte etxean zein kanpoan. Datorren astean Pasai Antxora doaz, eta maiatzean ere badituzte kontzertuak. /O.E.

Zertzelada

10. urteurrena borobiltzeko antolatu dute jaialdia, eta berezia izango da: sorpresa asko egongo dira

BERGARA

Zubieta kaleko lehen zenbakiko eraikina botatzen hasi dira

Zubieta kaleko lehen zenbakiko eraikina botatzen hasi ziren eguaztenean. Udalbatzak aho batez onartu zuen proiektua martitzenean. Azken urteotan eraikina botatzeko lanak geldirik egon dira; Azkoiberren laguntzaz, Udalak eraikin osoaren jabegoa eskuratu du lanei ekiteko. Azkoiberrek 147.500 euroko ekarpena egin du: 132.500 euro Zubietan zituen lokala eta etxebizitzagatik eta 15.000 euro lanengatik. Horren ordainetan, Ibargaraiko etxe berrietan egingo dituzten bederatzi garaje emango dizkio Udalak Azkoiber enpresari.

Sestra enpresa ari da Bideberri-Zubietako garapen proiektua lantzen. /E.M.



E.M.

Puntu horretan errepidea zabaltzeko botako dute eraikina.

ELGETA

Udalbatzarrak 5.443.500 euroko aurrekontua onartu du

Joan zen barikuan onartu zuten udalbatzarrean aurtengo udal aurrekontua, Aralarren aurkako eta EAJ-EAren aldeko botoekin. 5.443.501 euro izango da. Aurrekontuaren zatirik handiena inbertsioetarako izango da: 4.063.622 euro. Inbertsio nagusienak hirigintza arloan egingo dituzte; 3.443.394 euro erabiliko dituzte horretarako. Alkateak Pagatzako industriaguneko eta Torrealdeako urbanizazio lanak eta Maala parkea azpimarratu zituen inbertsioen artean. /I.A.

ESKORIATZA

Ibarraundi jauregia bisitariendako gune zentrala izango da etorkizunean

Eskoriatzako Udalak oso argi du bisitariendako harrera hobeto antolatu gura duela. Horretarako, Ibarraundi jauregian jarriko duten informazio puntuan bisitariei harrera egingo diete. Horrez gain, udalerriaren gaineko liburuxkak kaleratuko dituzte, eta ikus-entzunezko bat ere egin gura dute. Horren bidez, kanpotarrei emango dizkiete herriko jaien, eskaintza turistikoaren eta kultura ondarearen gaineko azalpenak. Bestalde, Udalak elizateak seinaleztatzen dihardu. /IKER BARANDIARAN.

LEINTZ GATZAGA

Aste Santuan, Gatz Museoan bisita ugari eta landetxeak beteta

Aurreko urteotako joerari jarraituz, aurtengo Aste Santuan ere kanpotar asko etorri da Leintz Gatzagara, inguruak ezagutu eta herri horrek eta bertako inguruek eskaintzen duten lasaitasunaz gozatzera. Gatz Museoa ehun lagun inguruk bisitatu dute, eta herriko landetxeak goraino egon dira beteta.

GATZA-GAIN ZABALIK

Hiru hilabete behar izan dituzte Gatza-gain jatetxean berritze lanak egiteko; joan den astea ezkero dago jatetxe hori zabalik. /X.U.

Gutunak

Hauteskunde autonomikoen aurrean zer?

Egungo egoera: 25 urte pasa ondoren, aldaketa politikorako garaia heldu da Euskal Herriarentzat. Hiru faktorek adierazten dute honakoa: Euskal Herri osoan, estatus politiko ezberdinak krisiak jota daude; etorkizunari buruzko eztabaida irekia dago eta proposamenak ugaldu dira; herri kontsulta eztabaida politikoaren ardatz kokaturik dago. Bakea da orain lehentasuna.

Lehentasun honi erantzun asmoz, Ezker Abertzaleak "Orain herria Orain bakea" ekarpena plazaratu zuen iazko azaroaren 14an, konponbide demokratikoan aurrera egin eta gatazka politiko eta armatuaren eszenatokia negoziazioaren bidez gainditzeko gure herrian.

Borondate honekin aritu ginen, abenduaren 30ean, Gasteizko parlamentuan; baita Jose Luis Rodriguez Zapatero, Espainiako presidenteari, eta Jacques Chirac Frantziako presidenteari gutuna zuzendu genienean ere.

Ildo berean, Nazio Eztabaida Gunean, hainbat eragile politiko, sindikal eta sozialek lehen akordio zabala sinatu dugu, martxoaren 5ean.

Ibarretxeren hautua: hauteskunde ez demokratikoak deitzea

Testuinguru honetan hauteskundeak aurreratu ditu Ibarretxek. Xede nagusi batekin: Ezker Abertzaleak bere proposamenarekin eta Ibarretxeren planari parlamentuko bozketan emandako erantzunarekin abiatutako dinamika eta egindako enplazamendua alboratzeko.

Herritarren gehiengoa elkarrizketa eta negoziazioaren bitartez gatazka konpontzeko prozesuari heldu behar zaiola eskatzen ari da. Ibarretxek, aldiz, bizkar eman dio konponbideari lehentasuna emanez jokatzeari.

Eta hautu bat egin du: hauteskunde ez demokratikoak deitzea, non askatasun demokratikoen alorrean urraketa ezin larriagoak ematen ari diren. Alderdien Legearen erantzukizuna PP eta PSOErena bada ere, Ibarretxe prest dago egoera honetatik sortuko den parlamentu ez demokratikoa kudeatzeko.

Hauteskundeotan zer dago jokoan? Hauteskundeotan bi eredu daude jokoan. Batetik, 25 urteotako eredu agortua: Madrileko gobernuarekin Estatutu berri baten inguruko akordioa proposatzen duena, gatazka politikoa konpondu gabe. Bestetik, Ezker Abertzalearen eredua dago, hilabeteotan jorratu dugun bide beretik: elkarrizketa eta negoziazioaren bitartez, gatazkaren konponbide demokratikoa dakarrena.

Ezker Abertzalearen botoa EHKAri emateak zertarako balio du? Legez kanporatzeari eta askatasun demokratikoen urraketa erabatekoari erantzuten zaio EHAK bozkatuz. Alderdien Legea inposatu nahiz lege honetatik etekinak atera nahi dituztenen aurrean, euskal herritarren erabakia errespetatua izan behar duela erakusteko bozka eraginkorra da gurea.

Bakearen alde egiten da EHAK bozkatuz. Bake prozesua martxan jartzeko ezker abertzale indartsua behar dugu eta Anoetako proposamenari bultzada sendoa eman behar zaio hauteskundeotan. Beraz 17an bozkatu EHKA (Euskal Herriko Alderdi Komunista).

AITTOR ARANTZABAL
Bergara

Jon Agirreri ez diote oporrik eman

Bai; urteroko bihurtzen ari diren oporrak izan ditugu; han edo hemen, baina lasai, erlaxaturik, gura izan duguna egiteko aukera izan dugu, pasa berri ditugun opor hauetan, baina denok ez dugu tratu berdina jaso; Logroñoko kartzelan, Arrasateko herritar bat dago, modu erabat injustuan giltzapetua.

Aspalditik ari gara esaten Jon osasun egoera larria jasaten ari dela; hiru ebakuntza egin beharra duela, bere bizkarrezurreko arazo latzak konpontzeko (ezin baita ibili), eta jasaten dituen artrosia eta diabetea oso aurreratuak dituen arren tratamendu egokirik ez duela jasotzen, espetxean ukatu egiten zaiolako ezinbesteko duen osasun zaintza.

Gaur-gaurkoz, aipatu ebakuntzok noiz egin zain dago Jon; aspaldi behar zituen eginak; baina inolako esplikaziorik gabe, luzapena luzapenaren ondotik, urteak daramatza egoera benetan txarrean, minak jota; Malagatik Logroñoko espetxera ekarri zutenean, egoera bideratzen hasia zela uste izan genuen, nahiz eta errezeloz beteta ere bageunden; eta gure beldurrak arrazoizkoak zirela ikusten ari gara.

Joni ez diote baimenik ematen ospitalera joan eta ebakuntzak egiteko.

Ez dago esplikaziorik, ez dago datarik, ez dago mendekuaren erabilpena besterik. Jonek aspaldi (duela 10 urte) askatasunean behar luke, indarrean ditugun legeen arabera; baina askatasunerako eskubidea ez ezik, osasuna zaindu ahal izatekoa ere ukatu egiten diote.

Jon Agirre etxeratzeko sortu dugun Herri Ekimenetik, egoera honen salaketa egiten jarraituko dugu, inondik egin ahal diren harreman guztiak gauzatzen saiatuko gara, Jon egoera honetatik lehenbailehen ateratzeko.

Bere etxean, aske egoteko eta bere osasuna modu egokian zaintzeko duen eskubidea gauzatu arte.

Hauteskundeetan gaude; baina zurrunbiloaren erdian, Joni leku bat egin behar zaio; ezin dugu ahaztuta utzi ziega zuloan.

Ea datorren abuztuko oporrak, sendatuta, kalean pasa ditzan lortzen dugun.

Larri dauelako, Jon etxera!

JON AGIRRE HERRI EKIMENA
Debagoiena

Paper apurtuen gaua Bergaran

Atzo gauean hauteskunde kanpaina hasi zen. Azken orduan jakin genuenez, aurretik Batasuna laga zuten moduan, Aukera Guztiak bozketatik kanpo utzia zuten. Baina bost axola Madrildik diotenari eta hor ibili ziren Batasuneko lagunak herriko paretetan *Orain Batasunaren ordua* dela zioten kartelak jartzen. Lan polita demokrazia eza salatzeko.

Gaur goizean jaiki naiz, eta egunero egiten dudan bezala, Interneteko leihoa zabaldu eta nire paseotxoa eman dut sarean. *www.gara.net, www.berria.info*... Azken orduko berriak (paperean ez daudenak) ezagutu ditut. Gero, *www.eitb.com* gunean sartu naiz eta Aita Santua larri baina bere kordean dagoela enteratu naiz, hori bai, kalitatearen Q-arekin.

Lanerako trastuak hartu eta kalera irten naizenean herriko paretak triste sumatu ditut. Ezkerrera begiratu, eskumara begiratu eta paretak isilik zeudela ohartu naiz. Gauaren iluntasunaz baliatuz norbaitek gure kaleak isilarazi dituela jabetu naiz.

Eguerdian lagun batek deitu dit PNV-EAren talanteak hauteskundeetako kanpainaren hasierako gaua paper apurtuen gaua bilakatu duela esanez. Guztiok ordaintzen ditugun txapel gorriak bidali omen ditu ekintza burutzera.

Arratsaldean mugimendua sumatu dut. Berriro kola poteak eta kartelak ikusi ditut hamaika gazteren eskuetan, garbi erakutsiz gure herriko paretak lehendakari baskongadoa eta bere polizia buru gezurtiak ez dituztela isilaraziko.

Honen bidez, herritarrak animatu nahi ditut Bergarako eta Euskal Herriko edozein herri, auzo eta kaletan norberak egindako kartelak itsasteko. Eta gauez kentzen badigute, egunez erantzungo dugu berriz gure kaleak kartelez betez.

IÑAKI IBABE GURIDI
Bergara

Bi edizioko GOIENKARIA

GOIENKARIA eraldatuta agertu zaigu gaur. Honela, aurrerantzean bi edizio ezberdin izango ditu eta ez lau.

Aldaketa nagusiak dira Arrasate eta Aretxabaletako herri edizioek bat egingo dutela eta, bestalde, Bergara aldeko edizioa Oñatin ere banatuko dela.

Honenbestez, Leintz aldean, hau da, Arrasaten, Aramaion, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan, GOIENKARIarekin batera beste 24 orriko edizioa banatuko da, eta herri bakoitzak bere herri aldizkaria edo bere tartea izango du. Guztira, 10.345 aleko tirada izango du Leintz aldeko edizioak. Azpimarratzekoa da Leintz Gatzagan, *Urlatik* izeneko aldizkarian jasoko dituztela herriko berriak. Eskualde osoan banatzen den zatia eta edizio lokala batuta, orotara 48 orriko aldizkaria jasoko dute herri horietakoek.

Edizio honetan, honela banatuko dira orriak: GOIENKARIA komunak izango ditu 24 orrialde eta beste 24 orrialdeetatik, Arrasatek izango ditu 12, Aretxabaletak 4, Eskoriatzak eta Aramaiok bina eta Leintz Gatzagak bat.

Bestalde, Bergara, Antzuola, Elgeta eta Oñatin, GOIENKARIArekin batera banatuko da beste 16 orriko edizio bat eta hemen ere herri guztiek beren tartea izango dute, baita Oñatik ere. Horixe da beste berritasun nagusietako bat, hain justu ere, Oñatik ere bere orria izango duela, astero herriko albisteak jasoko dituena. Herri hauetan, 40 orriko aldizkaria jasoko dute astero eta denera 8.680 ale banatuko dira.

Bergara eta Oñati aldeko edizioan, honela banatuko dira orriak: batetik, 24 orriko GOIENKARIA komuna eta beste 16 orrialdeetatik, Bergarak izango ditu 9, Antzuolak eta Elgetak bina, eta Oñatik bakarra.

Goienako prentsa atalean, hainbat aldaketa aurrez ikusten dira datorren urteari begira, barruko beharrek eta kanpoko faktoreek eraginda. Batetik, *Asteleheneko Goienkaria*-ren sorrerak ekoizpena birplanteatzea ekarri du; bestetik, errekurtsoak optimizatu eta diru kontuak orekatu beharrak ekarri du, oraingoz, egubakoitzero lau tirada ezberdin egin beharrean bi tirada egitea.

Datorren urtera begira, bestalde, aztertzen dihardu Goienako prentsa atalak egubakoitzetan tirada edo edizio bakarreko aldizkaria egitea, Debagoieneko herri guztietarako berdina izango dena, edo egunerokora jauzi egitea.

GOIENKARIA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Itxaso Berezibar,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Bergaran izan da aste honetan Iñaki Egaña historialari donostiarra. Hitzaldia egin zuen martitzenean: *1936ko gerra zibila Euskal Herrian: irudien bidez egindako ibilbidea*. Jarrai-Haika-Segi auzian deklaratzen ere izan da.

OIHANA ELORTZA



ARGAZKI PRESS

Iñaki Egaña

HISTORIALARIA

"Tokatutako lekuan borrokatu ziren 1936ko gerran, ez aukeratutako tokian"

1936KO GERRAK UTZITAKOAK

"Herritar batzuek euren senitartekoen gorpuzkiak aurkitu dituzte egin ditugun ikerketetan, eta beste batzuek ikusi dute eurek urtetan uste izan dutena gezurra zela"

JARRAI-HAIKA-SEGI AUZIA

"XX. mendeko historia aditu bezala deitu ninduten deklaratzera; justizia eta politika nahastu egiten dira sarri, eta inpresio hori dut auzi honetan ere"

Aditua zara 1936ko gerran?

XX. mendea bera ikertu dut nik, eta mende hartako gertaerak ezagutzen eta aztertzen egiten dut lana. 1936ko gerra ere ikertu dut, eta esan liteke nahikotxo dakidala gai horren inguruan, bai.

Baina zuk ez zenuen bizi izan, ezta? Gazteagoa zara.

Bai, 47 urte ditut, eta, beraz, ez nuen 1936ko gerra bizi izan, ez. Hala ere, beste gertaera batzuk adina interes piztu zidan, eta han eta hemen dokumentatzen hasi nintzen.

Zergatik erabaki zenuen 1936ko gerran sakontzea?

Behin egin nuen hitzaldi batean ere galdera hauxe egin zidan mutil batek. Momentu hartan ez nekien zer erantzun, neuk ere ez nuelako argi zergatia. Gerren historiak erakargarriak dira, eta akaso horregatik hasi nintzen neu ere gerrak ikertzen, eta horixe erantzun nion gazteari.

Auto barrura sartu eta etxerantz gidatzen ari nintzela, ordea, galdera hari bueltak ematen hasi nintzen. Etxean, familian, 1936ko gerrako makina bat kontu entzun ditut, eta orduan pentsatu nuen istorio horiek guztiek ikertzea merezi zutela.

Zure familian ere bizi izan dute 1936ko gerra?

Euskal Herriko familia guztietan bezala. Aitak kontatzen zuen berak 10 urte zituenean ezagutu zuela bere aita, gure aitajauna. Gerran ibili zen ordura arte; etxea utzi eta gerra egitera joan behar izan zuen hark ere. Gero, Santoñan izan zuten preso eta aitak 10 urte zituela bueltatu zen etxera. Bestetik, arreba ere urte askoren buruan ezagutu zuen. Aitajaunak dagoeneko galdutzat ematen zuen alaba, baina urte asko pasa ostean aitak ezagutu egin zuen arreba.

Sorpresa asko ikusi dituzu egin dituzun ikerketetan?

Ez dakit sorpresak diren, baina bizipen eta gertakari asko ikusi ditut.

Adibidez, gizon batek urtetan uste izan zuen berak *aita* deitzen zion gizon hura zela bere aita. Beti pentsatu izan zuen hori horrela zela. Ikerketa batzuen ondoren, ordea, gizon hura ez zela bere benetako aita ikusi da. Beste euskal herritar batek ere, txikitatik entzun izan du bere aita kanpoko emakume batekin joan zela etxetik, horregatik egin zuela alde herritik. Gertaera hark asko markatu zion bizitza herritar honi. Orain, ordea, beste hilketa batzuk eta beste gertaera batzuk argitzeko egin ditugun ikerketetan agertu diren dokumentu eta paperetan ziurtatu dugu bere aita hilobi hartan lurperatuta zegoen gizon bat zela.

Beste ondorio asko atseginak izango dira, ezta?

Batez ere senitartekoaren bila ari diren lagunak euren familiako pertsona hori aurkitzen dutenean. Euskal Herriko familia askok galdu zituzten senitartekoak 1936ko gerran. Askok, gainera, badakite non hil zituzten edo non egon daitezkeen lurperatuta. Datu horiei tira egin eta gerran desagertutako edo hildako senide horren berri izaten dutenean, berri onak izaten dira, orain badakitelako euren oroitzapenei esker aurrerantzean ere ez dituela inork ahaztuko.

Arantzadirekin batera egiten dituzu indusketa eta ikerketa horiek.

Arantzadiko kidea naiz eta taldean egiten dugu lana, bai. Aste honetan bertan, Bergarara etorri aurretik, Trebiñon izan naiz indusketa lanak egiten.

Toki askotan ari zarete egiten.

Dei asko izan ditugu. Jendeak emandako informazioari esker eta guk egindako ikerketei esker Euskal Herrian hilobi askotxo aurkitu ditugu, 20 inguru. Hala ere, ezin izango ditugu egin indusketak toki guztietan, ordutik hona errepideak edo obrak egin dituztelako.

Orain arteko indusketetan Debagoieneko gizon askoren gorpuzkiak agertu dira, Elgeta eta Andoaingo indusketetan, adibidez. Nik uste dut Andoaingo hilerria dela gerrako fusilatuen hilobirik handiena.

Zenbat eskari jaso dituzue?

Euskal Herriko 350 familiak eskatu digute euren senitartekoren baten gertaera ikertzeko. Asko dira, baina saiatuko gara eskaerei erantzuten.

Nolakoa izan zen 1936ko gerra?

Ni konbentzituta nago anaien arteko gerra izan zela. Batzuek diote gerra zibila izan zela eta iraultza bat izan zela ere entzun zen garai batean. Nik anaien gerra izan zela uste dut. Bakoitza borrokatu zen tokatu zitzaion lekuan, ez berak aukeratutako tokian.

Gerrako ondorioak nabaritzen dira oraindik gizartean?

Baietz uste dut. Eta ez ideologikoak bakarrik, baita bestelakoak ere.

Garrantzia galtzen du historiak urteak pasa ahala?

Bai eta ez. Lehen pasatutakoak orain ikertzeak eta ziurtatzeak historia bizirik dagoela erakusten du eta senitarteko horiendako ez du garrantzirik galdu.

Esaten dute historia egiten dutela kontatzen dutenek. Zuk nola kontatzen, idazten duzu?

Egia izan liteke hori. Bakoitzak duen lana edozein izanda ere, subjektibotasunak beti eragingo dio, eta, beraz, historia kontatzen duenari ere bai.

Dena dela, subjektibotasuna alde bietan dago. Batetik, historia idazten duena erortzen da subjektibotasunean eta, bestetik, irakurtzen duena. Hau da, ez da epaitu behar soilik historia nork idazten duen eta nola, baita nork irakurtzen duen ere, idatzitakoaren interpretazioa ere ezberdina izango delako batak edo besteak irakurri.

Durangoko azokan ere 1936ko gerrari buruzko liburua aurkeztu zenuen.

Haurrendako idatzitako liburua da: *1936ko gerra haurrei kontatua*.

Nola kontatu diezu gerra umeei?

Umeek ez zuten gerra bizi izan, noski, baina gerra egon zela eta nola gertatu zen jakin behar dutela uste dut. Horregatik erabaki nuen umeendako liburua idaztea.

Hiru seme-alabaren aita naiz eta uste dut horrek lagundu didala idazteko orduan. Umeak ume dira, baina ez inozoak. Beraz, beraiek ulertzeko moduko hizkuntzan eta moduan idazten saiatu naiz. Datu asko bat-batean ematea ez da erakargarria umeendako, nahiago dute ordu ko bizimodua, istorioak eta antzerakoak entzun. Eta horixe egin dut, orduko egoera azaldu eta istorioaren barruan datu batzuk sartu. Azkenean ez da ipuina idatzi dudana, ezta saiakera ere, tarteko zerbait da liburua.

Jarrai-Haika-Segi auzian deklaratzen ere izan zara.

Bai. Bukatzeko dagoen auzi horretan birritan egon naiz Madrilgo auzitegian deklaratzen, bi egunean.

Esan bezala, XX. mendeko historia aztertu dut, ez bakarrik 1936ko gerra. XX. mendeko historia aditu bezala deitu ninduten deklaratzera, eta hantxe izan naiz bi alditan.

XX. mendeko gertakariei buruz asko ikertu dut eta dokumentazio ugari dut. Artxibo eta dokumentu horietan ikusitakoa eta horietan oinarrituta erantzun nien abokatuaren galderei.

Nola jarraitu duzu auzia?

Auzitegi Nazionalean egon nintzenean, egoerari irmo eusten dioten gazteak direla ikusi nuen. Madrilen deklaratzen egon naizen bi egunetan gertutik ikusi dut auzia, baina gainerakoan prentsak ekarri duena irakurriz jarraitu dut. Eta gauza asko ez ditu ekarri.

Jarrai-Haika-Segi auzia nola bukatuko dela uste duzu?

Oraindik ez da bukatu eta, egia esan, ez dakit amaiera nolakoa izango duen. Hala ere, justizia eta politika askotan nahasten eta elkartzen dira, eta auzi honetan ere nahasita dauden inpresioa daukat. Nola bukatuko den ez dakit, auskalo.

Gonzalez da domekarako faborito, baina ez gutxietsi Koka

Bergaran jokatuko dute, 17:00etan, Eskuz Banakako Txapelketan

XABIER URTZELAI

Atzo goizean izan ziren Juantxo Koka eta Sebastian Gonzalez Bergarako pilotalekuan, domekarako materiala aukeratzen. Altzakoa eta Iparraldekoa gustura geratu ziren aukeratutako pilotekin. Gonzalez da faboritoa; hark alde izango ditu apustuak.

Juantxo Kokarendako bigarren kanporaketa izango da domekakoa. Berraondo gaindituta, pilotari gipuzkoarrak lasaiago dagoela esan zigun: "Lehenengo kanporaketa gaitza izaten da, eta gustura geratu nintzen Berraondoren kontra egin nuen partiduarekin". Gonzalezen gainean ere galdetu genion: "Oso kontrario gogorra da, zaila izango da irabaztea; Gonzalezek erakutsi du gorputzaldi onean dagoela".

Sebastian Gonzalezek domekan estreinatuko du txapelketa: "Helburuei dagokienez, partiduz partidu joan gura dut". Iparraldekoak ez dauka lasai kantxaratzeko asmorik: "Koka oso kontrario arriskutsua da, tantoa erraz amaitzeko gaitasuna dauka eta sakearekin ere kontuz ibili beharko dut, ez da norgehiagoka erraza izango". Bistan da pilotari guztiek ez dutela Buruz Buruko Txapelketa behar den moduan prestatzeko aukera izan. Ez da Gonzalezen kasua: "Hilabete osoa izan dut ondo entrenatzeko; alde horretatik oso gustura nago".

X.U.

Domekan jokatuko dute Kokak eta Gonzalezek, 17:00etan (ETB1).

MATERIALAREKIN GUSTURA

Atzo, pilotariek aukeratutako materialak ez zuen aparteko esamesarik sortu, bi pilotariak geratu ziren gustura: "Kokak pilota arinagoak aukeratu ditu, azkarragoak (103 eta 104,2 gramo). Baina pilota txukunak dira. Nireak astuntxoagoak dira (106,3 eta 106,7 gramo), horietako bat larru bueltakoa".

Berraondo gaindituta, Koka lasaiago dago; Gonzalezendako, berriz, lehenengo partidua da

Eskuz banakako partiduaz gain, ondorengo norgehiagokek osatuko dute jaialdia: Martinez de Irujok eta Eulatek Titin III.aren eta Elkororen kontra jokatuko dute, eta Etxanizek eta Nalda III.ak Berraondo eta Apeztegia izango dituzte kontrario.

Kirolabur

KARATEA/IBAN GALAN

Joan den asteburuan jokatu zuten Espainiako Karate Txapelketa, eta Iban Galan arrasatearra hirugarrena izan zen. Kanporaketak erraz gainditu eta gero, Europako txapeldunarekin neurtu zituen indarrak, eta baita irabazi ere. Hurrengo norgehiagokan munduko txapelduna izan zuen aurrez aurre, eta alde txikiagatik galdu zuen Galanek. Daukan maila erakutsita, Munduko Txapelketan esku hartzea izango da hurrengo helburua.

PILOTA/LAZKANO ETA UBERA ORDAGO ENPRESAN

Aitzol Lazkano eta Xabier Ubera profesionaletan ibiliko dira aurrerantzean, Ordago enpresa berrian. Juan Pedro Azkune durangarrak sortu du enpresa, eta hamaika pilotari ditu berarekin. Amateur mailan urteak egin eta gero, Arrasatekoak eta Elgetakoak profesionaletan lehiatzeko aukera izango dute.

FUTBOLA/UDA-REN ETA MONDRAREN ARTEKO DERBIA

Aretxabaletak (15.postuan) eta Mondrak (8. postuan) domekan jokatuko dute derbia, Ibarra futbol zelaian, 16:30ean. Mondrak dagoeneko lortu ditu lasaitasuna ematen duten puntuak (41), baina UDAk lan egin behar du oraindik (33 puntu), atzekoak gainean ditu-eta.

ALOÑA MENDI/RURAL KUTXAK BABESTUKO DU

Atzo eguerdian sinatu zuten hitzarmena Aloña Mendi Kirol Elkarteko eta Rural Kutxako ordezkariek. Lortutako akordioari esker, finantza-etxeak lau urtez babestuko du Oñatiko kirol elkartea. Ekonomikoki laguntzeaz gain, kirol materiala, sariak eta bestelako ekarpenak egingo ditu Rural Kutxak.

Edozein premiatarako:
- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:
- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo

Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

gasteizon
centro comercial abierto
merkataritza-gune irekia

GASTEIZEN HITZORDUA DUZU

www.gasteizon.com

2005EKO APIRILAREN 8tik 14arte

CINES ZINEMAK
Florida Guridi

CINES GURIDI ZINEMAK
"LA SEÑAL 2"
5-7,45-10,30
"ROBOTS"
5
"EL HUNDIMIENTO"
7,45-10,30
"EL PENALTI MAS LARGO DEL MUNDO"
5-7,45
"BUSCANDO A ALIBRANDI"
10,30
"MILLION DOLLAR BABY"
5-7,45-10,30
"HABANA BLUES"
5,30-10,30
"ENTRE COPAS"
8
"BE COOL" - ESTRENALDIA
5,30-8-10,30
"REINAS" - ESTRENALDIA
5,30-8-10,30

zinema

CINES ZINEMAK
Florida Guridi

CINES FLORIDA-GURIDI ZINEMAK
"LA DAMA DE HONOR" - ESTRENALDIA
5-7,45-10,30
"YA NO SOMOS DOS"
7-10,45
"LAS TORTUGAS TAMBIEN VUELAN"
5-9
"CACHIMBA" ESTRENALDIA
5-7,45-10,30
"BELLEZA PROHIBIDA" - ESTRENALDIA
5-7,45-10,30
"TIERRA DE ABUNDANCIA" - ESTRENALDIA
5,30-8-10,30
"HIERRO 3"
5,30-8-10,30
"ALGO EN COMUN"
5,30-8-10,30

zinema

CINES ZINEMAK
Florida Guridi

Aprobetxa ezazu Florida eta Guridi zinema-aretoen eta Bocatta-ren primerako menua:

Bocatta 1
+
edari 1
zinemarako sarrera 1

7 euro

Bocatta
"Bocatta onenak, ikusle onenentzat"

menua

50 IBILBIDE
FAMILIA
ETA
LAGUN ARTEAN

Jentilak, Elurzuloak,
Kontrabandisten bideak,
Pozalagua, Baltzola,
Aixerrotak...
Tokian tokiko ohitura, kultura,
istorio eta altxorrak ezagutzeko
50 mendi buelta.

Apirilaren 24tik aurrera

egunero ibilbide bat DOAN BERRIArekin

Euskaldunok behar dugun
berria

Laguntzaileak:
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS
euskalmet euskal meteorologia agentzia
ingurumena Zure esku dago
bbk

OMU
ZERAMIKAK
DEBAGOIENA

Bainu altzari eta osagaiak
•
Hidromasaje kabinak
•
Manparak

BILTEGIA/BULEGOAK:
Meatzerreka 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43

ERAKUSKETA:
Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20

Goienka 2a

Egubakoitza / 2005eko apirilaren 8a

Kultura eta aisialdia

Apirilaren 8tik 15era

PACO IBAÑEZ ESKORIATZAN

Mende erdi darama agertokietan, eta hasierako indarrarekin eta grinarekin jarraitzen du Paco Ibañez kantautoreak musika egiten eta zuzenean jotzen. Euskal Herrian aspalditik egon gabe, datorren zapatuan, hilaren 16an, Debagoienean izango da, Eskoriatzan, hain zuzen ere. Gaztetan ezagutu zutenek berebiziko ilusioz hartu dute hitzordua; gainerakoek orain dute kantautore hori deskubritzeko. Paco Ibañezek ama euskalduna zuen eta euskaraz abesten du zenbait emanalditan; ziur honakoan ere hala egingo duela. Bere beste argumentu nagusiak dira poeten lanei omenaldiak eta hainbat lekuko doinuak, tartean Latindar Amerikakoak eta Andaluziakoak. **/14**

LEIRE KORTABARRIA

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO IRUDIA: A FLOR DE TIEMPO S.L.

MUSIKA/ PACO IBAÑEZEK ESKORIATZAN JOKO DU APIRILAREN 16AN

Poesiaren eta askatasunaren bardoa

ESPAINIAKO DIKTADURATIK HASITA, MUNDU OSOKO EGOERA ERREPRESIBOAK SALATU IZAN DITU BETI PACO IBAÑEZEK

LEIRE KORTABARRIA

Euskal Herriarekin odolezko eta sentimenduzko lotura berezia du Paco Ibañezek (Valentzia, 1934); izan ere, ama euskalduna zuen eta Donostian bizi izan zen. Eta hilaren 16an, zapatua, amaren jaioterrira itzuliko da kantautore mitikoa, Eskoriatzan kontzertua eskainiko du eta.

Poesia eta musika bat egiten ditu eta horiek arma bezala erabiltzen ditu Paco Ibañez kantautoreak; injustizien eta errepresio mota guztien aurka erabili izan ditu. Horien testigantza jasotzen dute hainbat diskok, mundu osoan egin dituen kontzertuek eta 50eko hamarkadatik zabaltzen diharduen abestiek.

Urte asko pasa dira gitarra jotzen eta abesten hasi zenetik, baina izpiritu berberarekin dihardu Paco Ibañezek eszenatokian. Hala egiaztatzeko aukera izango da Eskoriatzan egingo duen kontzertuan. Hilaren 16an, zapatua, izango da hori, kiroldegian, 22:30ean. Kantautore historiko horri entzun gura diotenek sarrerak erosteko aukera dute honako lekuetan: Eskoriatzako Mirentxu eta Dorletan, eta kiroldegian; Oñatiko turismo bulegoan; Arrasateko Hire liburu-dendan; Aretxabaletako Arlutz tabernan; eta Bergarako Bilintx liburu-dendan. 12 euro da sarrera; 15 eurotan salduko dute txarteldegian.



A FLOR DE TIEMPO

Paco Ibañez.

Ibañezen diskografia

PACO IBAÑEZ 1
A flor de tiempo/Universal Music, 1964.

PACO IBAÑEZ 2
A flor de tiempo/Universal Music, 1967.

PACO IBAÑEZ 3
A flor de tiempo/Universal Music, 1969.

PACO IBAÑEZ EN EL OLYMPIA
A flor de tiempo/Universal Music, 1969.

PACO IBAÑEZ CANTA A BRASSENS
A flor de tiempo/Universal Music, 1979.

POR UNA CANCIÓN
A flor de tiempo/Universal Music, 1990.

A GALOPAR
PDI/Universal Music, 1991.

OROITZEN
A flor de tiempo/Universal Music, 1999.

PACO IBAÑEZ CANTA A JOSÉ AGUSTÍN GOYTISOLO
A flor de tiempo/Universal Music, 2002.

A FLOR DE TIEMPO
A flor de tiempo/Universal Music, 2002.

FUE AYER
A flor de tiempo/Universal Music, 2003.

Herritarrak, ilusionatuta

Eskoriatzarendako, oso garrantzitsua da Paco Ibañez bezalako musikari baten kontzertua eskaintzea", dio Mari Carmen Arrieta udal teknikari eta antolatzaileetako batek. Hark azaldu digu herritarrengan kontzertu horrek piztu duen zirrara: "Batez ere 40 urtetik gorako herritarrek ikusmin eta ilusio handiz hartu dute albiste hau. Ezustea izan da, baina atsegin handiz hartutakoa".

Udalak antolatu du Paco Ibañezen kontzertua, azken urteotako musika emanaldi sortaren barne. Orain dela urte batzuk, oihartzun handiko musikariak ekartzearen aldeko apustua egin zuen Udalak. Lehenengoa Benito Lertxundi izan zen; haren ondotik etorri dira Pantxoa eta Peio, Mikel Urdangarin, Kepa Junkera... eta orain, Paco Ibañez. Urtean halako bi kontzertu egoten dira Eskoriatzan, bata azaro inguruan eta bestea udaberri partean.

EUSKAL HERRIA BIHOTZEAN

Litekeena da Ibañezek bere euskal sustraiak gogora ekartzea emanaldi horretan. Izan ere, 1999an Imanol kantautorea zenarekin disko bat grabatu zuen, *Oroitzen*, Donostiako Apakintza baserriko umezaroko oroitzapenen inguruan. Euskal Herrian beste behin ere bizi izandakoa da, 90eko hamarkadan. Euskal artisten lana ere aintzat hartu du Ibañezek, besteak beste, Jorge Oteiza eskultorearena eta Gabriel Zelaia poetarena. Azken honek esan zuen: "Asko zor diot Paco Ibañezek nire poemei eman dien zabalkundeari".

Poesia maite du Paco Ibañezek, eta hori da bere lanaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Batez ere, espainiar poeta handien lanetan oinarritu da bere musika egiteko: Gongora, Quevedo, eta 27ko poetak, Machado, Lorca, Hernández, Cernuda edo Alberti bezalakoak. Horien poesiaren bidez, Espainiako diktadura salatu zuen. Espainiako egoera politikoak kezka handia piztu izan dio, baita gaur egun ere: hala, iaz, otsailean, Bartzelonan egindako kontzertu baten, Espainiako orduko gobernua gogor kritikatu zuen.

PERTSONA ETA LEKU ESANGURATSUAK

Errepublikarra da ideologiaz Paco Ibañez; eta, bere emanaldietan, errepublika antzeko bat sortzen dela diote adituek, Paco-ren errepublika delakoa. "Iraganak, orainak eta etorkizunak gorputz bakarra osatzen dute", idatzi zuen Pere Pons musika adituak. Poesiaz, maitasunaz eta askatasunaz hitz egiten dute Paco Ibañezen abesti gehienek.

Unibertsaltasunak ere arduratu dio. Bere mezuak mundu osoan zabaldu ditu, eta emanaldi jendetsuak egin ditu Frantzian edo Latindar Amerikan, besteak beste. Historiako leku eta urteurren esanguratsuetan jo du: Bastillako plazan, Paris askatu zuteneko 60. urtemugan; García Lorca hil zuteneko urtemugan, bera fusilatu zuten lekuan; Picassoren Gernika tapiza inauguratu zutenean, Picasso bizi izan zen lekuan; Sarajevon... Azken hamarkadotako historiaren lekuko bezala, pertsonai handiak ezagutu ditu: Pablo Neruda, Georges Brassens, Salvador Allende, Carlos Saura, Rafael Alberti, Atahualpa Yupanqui edo José Agustín Goytisolo, adibidez.

KONTZERTUA/ ARRASATEAR BAT, LEHEN EUSKALDUNA ORKESTRA PROFESIONAL BATEKIN TRONBOI-JOLE BAKARLARI LANETAN

ALBERTO URRETXO, TRONBOI-JOLEA

"Egunotako emanaldiak ezohikoak dira niretako, kontzertista dihardudalako"

LEIRE KORTABARRIA

Egun bereziak dira hauek Alberto Urretxo tronboi-jolearendako (Arrasate, 1972). Atzo, eguena, eta gaur, egubakoitza, emanaldi bana egitekoa da Bilbon, Euskalduna jauregian, 20:00etan. Lehen euskal tronboi-jolea da bakarlari moduan orkestra profesional batekin jotzen. Guk kontzertuen aurretik hitz egin genuen berarekin.

Zelan bizi izan dituzu emanaldien aurreko egunak?

Lasaitasunez hartzen saiatu naiz. Ez dut aparteko entsegu askorik egin: Bilboko Orkestrak bere Sinfonikoko programa hasi du joan den astean, eta nik neure ikasketa eta egitarau pertsonalarekin jarraitu dut. Normalean, entseatu eta zuzenean kontzertura joaten gara; horixe da modurik onena. Prestatzeko, norberak egiten duen lan pertsonala da garrantzitsuena.

Kontzertu bereziak izango dira zuretako egunotakoak...

Bai. Euskal Herrian bi orkestra profesional dago, eta normalean, kanpoko tronboi-joleak gonbidatzen dituzte hemen jotzeko. Izan ere, tronboia ez da oso musika-tresna eskatua bakarlari moduan kontzertuak emateko.

Horregatik, oso gustura nago aukera honekin, eta esperientzia berezia da, bai. Tronboi-joleok aukera gutxi izaten ditugu Bilboko Orkestraren mailako taldeekin jotzeko. Horrez gain, nire ohiko lankideak direlako ere emanaldi bereziak dira.

Zure ohiko emanaldietatik oso desberdinak dira hauek?

Bai, alde handia dago. Bilboko Orkestran bi tronboi-jole bakarlari gaude, baina horrek esan nahi du orkestrarekin batera jotzen dugula. Honako emanaldiotan, ordea, kontzertista bakarlari moduan dihardut.

Zeuk esan duzu tronboi-jole bat bakarlari moduan entzutea ez dela oso ohikoa gurean. Zergatik da hori?

Beste instrumentu batzuek errepertorio askoz zabalagoa dute eta ohikoagoa da horien bakarkako emanaldiak entzutea: pianoa, biolina... Tronboia geroago garatu da, XX. mendekoa da. Horregatik, entzuleendako oso ezohikoa da, musika-tresna desberdina; beste sonoritate eta estilo bat ditu. Hala ere, entzuleei esango nieke, azken baten, beste kontzertu bat bezalakoa dela. Animatuko nieke etortzera, ea tronboia entzutera ohitzen garen. Gainera, lehenengo aldiz bakarlari euskaldun bat izanda...

> *"Tronboi-joleok aukera gutxi dugu Bilboko Orkestraren mailako taldeekin jotzeko"*

> *"Euskal Herrian ez dago tronboia entzuteko ohitura, eta jendea horretara animatuko nuke"*

Bakarlari, Orkestrako kide, tronboi irakasle, hainbat brass taldeko kide... Zelan bateratzen duzu dena?

Sakrifizio handia da, baina orkestran bi bakarlari egoteak laguntzen dit beste orkestra batzuekin jotzen.

Bestetik, Euskal Herrian tronboi irakaskuntza premia handia dago. Beharrezkoa da irakasleon lana, baina baita jendearen inplikazioa ere, musika-tresna hau gehiago zabal dadin. Gazteongan interesa sumatu dut, baina ez dago behar den maila.

Familian ez duzue, behintzat, maila txikirik... Unai anaia eta Mikel Arkauz lehengusua ere tronboi-joleak dira.

Bai. Unaik Korean dihardu lanean une hauetan; Brasilen egon zen, eta lan polita egin zuen han ere. Proiektu asko ditu. Mikel lehengusuak ere kanpoan ikasi behar izan du, izan ere, esan bezala, Euskal Herrian ezin izan ditu maila batetik aurrerako ikasketak egin. Eurek badihardute irakaskuntzan nik baino gehiago. Oso arlo interesgarria da.

ARRASATE PRESS

Alberto Urretxo tronboi-jolea.

Hamar urte zituenetik

Alberto Urretxo eskarmentu handiko tronboi-jolea dugu. Arrasate Musikalen hasi zituen tronboi ikasketak. Donostian eta Baionan sakondu zituen, baina, mailaz igotzen zihoan neurrian, kanpora joan behar izan zuen. Hain zuzen ere, Parisen, Sevillan eta AEBetan ikasitakoa da, besteak beste.

Profesional moduan, hiru brass taldetako kide eta Sevilla, Baiona, Granada, Iruñea edo Santiagoko orkestrekin jotakoa da. Gaur egun, Bilboko Orkestra Sinfonikoko kidea da.

KIA MOTORS

KIA SORENTO
Gasolina/Diesel
24.300 eurotik aurrera*

KIA CARNIVAL
Gasolina/Diesel
19.300 eurotik aurrera*

KIA PICANTO 1.0 / 1.1
"0 km" azken unitateak
6.580 eurotik aurrera*

Tecnocar

Honda eta Kia
banatzaile ofiziala

TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g – Arrasate
943 79 22 67 –
Faxa: 943 71 27 38

Adi!
- **3** urteko garantia
- **0 km** aukera bereziak

*Prever plana barne.

HONDA
The Power of Dreams

HONDA CRV
27.300 eurotik aurrera*

DIESEL BERRIA

BERRIA: 6 eserleku

HONDA FRV
20.600 eurotik aurrera*

HONDA ACCORD
Gasoli./Dies.
22.100 eurotik aurrera*

Apirilak 8–15

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

DEIAK

ANTZUOLA

► **Independentzia Eguneko** bazkarirako txartelak salgai daude Mox, Larrea eta Surpe tabernetan, 10 eurotan. Bazkaria hilaren 16an izango da.

ARRASATE

► **Liburu azoka** antolatu du Udal Liburutegiak hilaren 8tik 17ra bitartean, Seber Altube plazan, Nazioarteko Liburuaren Eguna dela eta.

► **Literatura solasaldiak** antolatu ditu Udal Liburutegiak, apiriletik ekainera bitartean. Guztira, sei saio izango dira. Izenematea zabalik dago Monterronen bertan edo honako telefonoetara deituta: 943 77 01 05 edo 943 77 07 68.

DEBAGOIENA

► **Arizmendi Ikastolak, Guraso Eskolaren barne,** honako ekintzak antolatu ditu: *Pentsamolde baikorra, jarrera baikorra* delako hitzaldia astelehenean, hilak 11, Arizmendiren Gazteluondoko gunean, 18:00etan, Lehen Mailako Hezkuntzako ikasleen gurasoendako; *Elikadura egokia: janariarekin arazoak* izenekoa martitzenean, hilak 12, Aretxabaletako Basabeazpi gunean, 15:00etan, aiton-amona eta zaintzaileendako; eta eguenean, hilak 14, *Gaueko irteerak* delako berbaldia DBHkoen gurasoendako, Almenen, 18:00etan. Bestetik, hilaren 14an Batxilergoaren gaineko batzarra egingo dute, Almen gunean, 18:00etan.

► **Udalekuak eta udako ekintzak** antolatu ditu Foru Aldundiak. Izenematea zabalik dago Arrasate, Bergara eta Oñatiko Gazte Informazio Zerbitzuetan eta Aretxabaleta eta Eskoriatzako kultura etxeetan edo *www.gipuzkoa.net/oporraldi* webgunean.

ESKORIATZA

► **Farmaziaren gaineko jardunaldiak** egingo dituzte Ibarraundi museoan. Hilaren 11n, astelehena, *Sendabelarren propietateak eta tratamendua. Euskal medikuntza tradizionala* izeneko hitzaldia egingo dute, 18:30ean. Hilaren 13an, eguaztena, sendagaiak, enplastoak eta antzekoak egiten ikasteko tailerrak egongo dira ikasleendako.

► ***Haurtzaroa eta hizkuntza*** delako jardunaldiak egongo dira Guraso Eskolaren barne. Eguaztenean, hilak 13, eta eguenean, hilak 14, izango dira, kultura etxean, 18:00etan.

► **Otoitz pertsonala lantzen hasteko topaketak** antolatu ditu Leintz Bailarako Pastoral Barrutiak eta Eskoriatzako Parrokiak. Eguaztenero izango dira, 20:00-21:30, Itarte etxean. Izena emateko, jo sakristiara, parrokiako lokaletara edo bidali mezu bat *gaztekristauak@euskalerria.org* helbidera.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► ***El placer de leer*** delako argazki erakusketa dago Monterron jauregian, 10:00-13:00 eta 16:00-20:00.

► **Elisabet Eguren** margolari eibartarraren erakusketa egongo da hilaren 8tik 24ra bitartean Iturriotz kaleko Harresi aretoan, astegunetan 18:00-20:00 eta zapatu eta jaiegunetan 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

BERGARA

► **Eba Ramirê** argazkilariaren lanen erakusketa zabalduko dute hilaren 14an, eguena, kultura etxean. Bisita ordutegia: astegunetan, 18:00-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00.

ESKORIATZA

► **Tren zaharraren gaineko** argazki erakusketa egongo da Inkernu tabernan hilaren 9tik 23ra bitartean.

► **Antzinako farmaziaren** gaineko erakusketa egongo da Ibarraundi museoan hilaren 11tik 24ra bitartean. Ordutegia da 16:00-19:00.

MUSIKA

ARRASATE

► **Tren Nocturno** taldeak joko du gaur, egubakoitza, Gure-Leku tabernan, 23:30ean. Batez ere, jazza egiten dute.

► **Hainbat kontzertu** izango dira 3.60 aretoan: gaur, egubakoitza, Discipline, Des-kontrol eta Suspenders taldeek joko dute, 23:00etan; eta bihar, zapatua, Tokyo Sex Destruction eta Dirties taldeen emanaldia egongo da 23:00etan eta Pablo Akaros eta Gonzalo Morbiden emanaldia 03:00etan.

BERGARA

► **Zona Urbana hip-hop jaialdia** izango da gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, Jam aretoan, 21:00etan.

► **Meataka!** musika emanaldia egingo dute Asier eta Kaiet disko-jartzaileek bihar, zapatua, Go Jamen, 01:00etan.

OÑATI

► **Chuck Prophet** musikari estatubatuarrak pop-rock estiloko kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean.

► MUSIKA

BI KONTZERTU EGUNOTAN, ARRASATEKO MUSIKALDIAREN BARNE

Arrasaten musika eskaintza hutsunea zegoela ikusita, horixe indartzea erabaki du hango Udalak, eta Apirileko Musikaldia antolatu du, batez ere, musika klasikoa gustuko dutenei halako kontzertuak eskaintzeko. Hileko egubakoitz eta zapatu guztietan kontzertu bana egongo da Arrasaten, hortaz. Gaur, egubakoitza, Debagoieneko Lausardi Abesbatza eta organo emanaldia egongo da San Joan Bataiatzailearen Parrokian, 20:30ean, eta bihar, zapatua, Maciej Pickulsky piano-joleak egingo du kontzertua, Amaia antzokian, 20:30ean. Datozen asteotan, arpa, hari instrumentuak, saxoa, perkusioa, abesbatza bat… izango dira Arrasaten. Aurrera begira, musika estilo gehiagori lekua emango dio Arrasateko Udalak.

Noiz: hilaren 8an eta 9an, emanaldi bana. **Non:** egubakoitzean, parrokian; zapatuan, Amaia antzokian. **Ordua:** 20:30ean.

► **Ganbara Abesbatzak** 10. urteurrena ospatuko du bihar, zapatua, jaialdi berezi batekin. Musika, bideo eta argazki emanaldiak, taldearen historiaren kontaketa… izango dira, besteak beste. Zubikoa kiroldegian izango da, 22:30ean.

ANTZERKIA

ARRASATE

► **Coralia Rodríguez** ipuin kontatzaile kubatarrak bi emanaldi egingo ditu martitzenean, hilak 12. Haur liburutegian arituko da 18:00etan, 6 urtetik gorakoendako saioan, eta hitzaldi aretoan 19:30ean, helduendako.

BERGARA

► **Interruptus** taldeak antzezlana egingo du gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

► ***Lezio berri bat ostrukari buruz*** delako antzezlana egingo du Ez Dok Hiru Bikoteatroa taldeak gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean. Bernardo Atxagaren ipuin baten dago oinarrituta.

IKASTAROAK

ARRASATE

► **Hastapen mailako taila ikastaroa** antolatu du Arte elkarteak apirilaren 19tik aurrera. Izena emateko, deitu honako zenbakietara, iluntze aldera: 943 79 77 57 (Jose Mari) edo 943 79 40 79 (Felix).

BERGARA

► **Afrikako perkusio ikastaroa** antolatu du Jardun elkarteak apirilaren 22 eta 29 eta maiatzaren 6rako, Arrizuriagan, 18:30-20:30. Izenemate epea hilaren 18an bukatzen da. Izena emateko, jo euren bulegora, kultura etxean, edo deitu 943 76 36 61 telefono zenbakira.

OSPAKIZUNAK

ARRASATE

► **Gaztetxearen 14. urteurrena** ospatzeko, hainbat ekintza antolatu dituzte: bihar, zapatua, Udaberri Jaia egingo dute; etzi, domeka, pilota txapelketa 10:00etan eta *Hero* filmaren emanaldia 17:30ean.

Zinema

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

Los increíbles
Egubakoitza: 22:30.

Los Lunnis en la Tierra de los Cuentos
Domeka: 17:00.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Largo domingo de noviazgo
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Spy Kids 3D
Domeka: 17:00.

Como una imagen
Eguena: 20:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

Conociendo a Julia
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

Hitch
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Como una imagen (J.B.A.)
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

Un canguro superduro
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

El penalti más largo del mundo
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

The ring 2
17:00, 19:45, 22:30.

Be cool
17:30, 20:00, 22:30.

Reinas
17:30, 20:00, 22:30.

Robots
17:00.

El hundimiento
19:45, 22:30.

Buscando a Alibrandi
22:30.

Million dollar baby
17:00, 19:45, 22:30.

El penalti más largo del mundo
17:00, 19:45.

Habana blues
17:30, 22:30.

Entre copas
20:00

■ **MIKELDI ZINEMAK**

The ring 2
17:30, 20:15, 22:45.

Un canguro superduro
17:30, 20:15, 22:45.

Hotel Rwanda
17:20, 19:50, 22:35.

Entre copas
20:00, 22:30.

Doble visión
17:15, 20:00, 22:30.

Robots
17:15.

Million dollar baby
17:15, 20:00, 22:30.

Hitch
17:30, 20:15, 22:45.

La casa de las dagas voladoras
17:15, 20:00, 22:30.

Los chicos del coro
17:30, 20:15, 22:45.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Looking for Fidel
17:00.

Las tortugas también vuelan
17:00, 21:00.

La dama de honor
18:10, 20:15, 22:30.

Ya no somos dos
19:00, 22:45.

Hierro 3
17:30, 20:00, 22:30.

Cachimba
17:00, 19:45, 22:30.

Belleza prohibida
17:00, 19:45, 22:30.

Tierra de abundancia
17:30, 20:00, 22:30.

Algo en común
17:30, 20:00, 22:30.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Hitch
16:45, 19:30.

Robots
16:15, 18:15, 20:15.

Asalto al distrito 13
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Miss Agente Especial 2
16:15, 19:30, 22:15, 00:45.

El escondite
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Blade trinity
16:45, 19:30, 22:30, 01:00.

Creep
22:30, 01:00.

Los chicos del coro
16:00, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Un canguro superduro
16:15, 18:15, 20:15, 22:30, 00:45.

Be cool
16:45, 19:30, 22:15, 00:45.

Constantine
22:15, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Hitch
12:15, 16:00, 18:10, 20:25, 22:40, 00:55.

Reinas
12:15, 16:10, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

Robots
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Los padres de él
19:50, 22:15, 00:35.

Million dollar baby
12:15, 16:35, 19:20, 22:00, 00:35.

Be cool
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Team America
12:15, 16:40, 18:40, 20:40.

Heffalump
12:15, 16:45, 18:15.

El escondite
20:15, 22:15, 00:15.

Bob esponja
12:15, 16:15, 18:00.

Un canguro superduro
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00

El día de la boda
12:15, 16:30, 18:25.

Saw
12:15, 16:30, 18:30, 20:35, 22:40, 00:45.

Miss Agente Especial 2
12:15, 16:05, 18:10, 20:25, 22:35, 00:50.

Hotel Rwanda
19:45, 22:10, 00:40.

Creep
22:40, 00:30.

The ring 2
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Blade trinity
12:15, 16:00, 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

Life aquatic
12:10, 17:20.

Blade trinity
12:10, 17:15, 19:45, 22:15, 00:45.

Robots
12:15, 16:00, 18:00, 20:00.

